Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Carmen Uranga Alberdi

Albiztur, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Ama Albizturko Itxaso baserrikoa zuen, eta aita, berriz, Laskibar baserrikoa. Carmen bera, Albizturko Elane-n jaio zen, nahiz eta bera eta bere senideak jaiotzerako herritarrek Estanga deitzen zioten etxeari. Izan ere, Carmenen jaiotetxea taberna, denda eta estankoa ere bazen. Amaren ardura izan ohi ziren dendako kontuak, eta aitak harrobian egin zuen lan gerra hasi zen arte. Gerra ondorenean, etxean eduki zuten herriko telefono bakarra. Carmen gazterik joan zen Bar Urangara neskame (Tolosan). Hogeita zazpi urterekin ezkondu zen, Irurara, nahiz eta gerora jaiotetxera itzuli zen bizitzera.

Zintak

ALB-005

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Data**: 2010-09-11
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Artetxe, Miren
- **Transkribatzailea(k)**: Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Gerra aurreko bizimodua: "viva la juerga!"

- **Erref**: ALB-005/004
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:05:36

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxean taberna zuten, eta gerra aurretik nahiko bizimodu polita izan omen zuen bere familiak; aitak, batez ere.

2. Amaren janari-denda

- **Erref**: ALB-005/006
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:05:53. **Bukatu**: 00:08:52

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Amak janari-denda jarri zuen. Galeran ekartzen zien saltzekoa Tolosatik, eta berak dendan saltzen zuen. Herritarrek behar-beharrezko gauzak soilik erosten zituzten bertan.

3. Dendako neurriak

- **Erref**: ALB-005/008
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:08:59. **Bukatu**: 00:10:14

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Dendan saltzen zituzten produktuak neurtzeko hainbat neurri izaten ziren: ontza, libra...

4. Estankoan tabakoa nola saltzen zen

- **Erref**: ALB-005/012
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:11:33. **Bukatu**: 00:15:54

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Etxeko denda estankoa ere bazen, eta tabakoa ere saltzen zuten bertan. Baserritarrek egiteko tabakoa erosi ohi omen zuten, eta egindako zigarro garestiak, berriz, herritar gutxi batzuk.

5. Hamabost egunean behin lixiba

- **Erref**: ALB-005/017
- **Iraupena**: 0:06:23. **Hasi**: 00:20:29. **Bukatu**: 00:26:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Presan garbitzen zuten arropa; gutxi izanez gero, iturrian ere bai, eta hamabost egunean behin etxean lixiba egiten zuten.

6. Lehenik argindarrik ez, gero argindar kaxkarra

- **Erref**: ALB-005/019
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:27:02. **Bukatu**: 00:31:28

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Albizturren argindarrik ez zen garaian hozkailua ekarri zuten etxera, eta funtzionatzen ez! Gerora jarri zuten argindarra herrian, bi presatatik, baina, erditan argirik gabe izaten omen ziren.

Transkripzioa
- Ekarri zuen, jarri zuen, beti jartzen ai zien ta, ez zun ez zun balio, ta argiik ez zeola. Argiik ez zeola. Hantxe, kendu gendun ta ez dakit ze ingo gendun bota o, harek Villafrancatik ekarri zun ta han bai argie ordun baiño guk ezer ez. Ta kitto!
- Alperrik frigorifikua.
- Alperrik, bai ez dakit ze ingo gendun bota o ze ingo gendun. Harek'e asko balio ez zula ekarri zun, ta guk berriz bota. Eta argie hor zun, zentral kaxkar bat honek zea honek, herri honek ta ezin, ezin geo gauez, eunez ematen zuen ude, hor beheko zentral batea ez dakit zertako emate zuen, beheko zentral batea eamaten zuen, ude. Eta, hantxe harekin itten zuen egunezkoa, ta gero gauen illuntzen kentzen zen argie, presa bete zein, utzi pixkaten, ta geo hurrengo euna arte ez zuen jartzen beheko, beheko martxa hoi. Eta udekin mixeri haundik. Geo tximista baldin bazan mozten zittun kable guztik, ta trumoie baldin bazan'e igual ta buuuooo, kafetera jarri aurrena geo Donostiko etxe batek jarri zun kafetera ta, zenbat aldiz aberiatze zun? Argik, argi pobrek.
- Zentrala nun zeon?
- Ba, hortxe jun zaitte hor behetik gora, eta belaxe, presa ikusiko zu hor azpikalden presa, ta aurreaxeo jun ta etxe zahar-zahar-zahar-zahar bat dao, eta hantxe dao zentrala. Ta honen attek ibiltze zun zentrala, bai. Honen attek ibiltze zun zentrala.
- Ta ze, ze izaten zan urakin indako argiya, errotakin? Nola itten zuen.
- Udakin, udakin itekoa. Ta bi errota're bazien: bat hoi, presan ondokoa, ta bestea beste taberna beheraxokoa, hantxe dao beste zea, presa bi presa zien.
- Ta haitatik argiya banatzen zan, Albiztur guztiako?
- Bai, ta gaiñea Albiztur guztiako, Santamaña, Beizama "y"... Auzo Txiki, bakizu nun daon Auzo Txiki? Han´e bai, baiño erditan argiik gabe, argiik gabe eoten giñan.
- Nola izaten zan orduko kableadua-ta, nola etortzen zan, posteik poste etortze zan kablia? Nundik etortze zan.
- Ba, nik ez dait nundik, bai puskaka o, ez dait nundik, behetik etortzen zien, behetik, behetik etortzen zien ta. Abixoa: "argiik ez omen zeon, Aldaban argiik ez emen dao, Alegrin argiik ez emen dao". Poxpolok zeakin kandelakin, ordun beti zeak eukitzen giñun, geo azkenak ata zien, holako farol batzuk "de butano", baiño hoik gero ata zien, ta haik argi politta iten zuen goien jarrita, bestela berriz kandeleroa jarri mostradora gaiñen, ta mahaien gaiñen'e bai ta, holaxe. Mixerie zan.
-Ta bonbilla hayek, itte zuenen nolako argie itte zuen?
-Ttikie, ttikie, ipurtargi, ipurtargi, ttikie. Ta haundie itte zuenak e jartze zittuen batzutan ta lehertze zien ta, kitto.
-Izate zan, paretan bi kuarton arteko paretan zulua in ta bertan bonbilla ta...
-Baita, baita, hemen e bazien hola. Bai. Zulua in tabiken ta, bitargi ite zula, jesus! Holaxe.

-Ibiltze zenduen kinkea o...
-Baita, kinke. Gasolinakin o eztakit zenekin holako zea farolillo, gaiñea geo kinke kea zikiñe zun, dana zikintze giñin ta, jesus, desastre. Geo etxe guztitan su bajuk zien, su bajuk ta, jesus!

7. Bizimoduaren aldaketa

- **Erref**: ALB-005/022
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:36:37

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehendik hona aurrerapen asko egin omen da. Atzerriko irudiak ikustean gogoratzen da Carmen lehengo bizimoduaz. Hemengoa aldatu omen da, bai, baina hangoa ez, dirudienez.

Transkripzioa
-Hor itxe hortan bizi zien, ude ta honea, ta, Jesus! Nei deitze zitan, handik: "Karmentxo!" hango andrek eta: "etorri!". Ta goitik, goiko balkoi hue oain arreglatu due, goiko miradore hori ez zun, leiho txiki bat. Ta atatze zan, balko, balkoi bi hoitako batea, ta zestoa botatzen zitan, ta zestoa botatzen zitan ta esaten zitan: "ekarri ber dittuzu, ardoa, oliua, azukrea, ez dakit zer ta bakit zer", zesto txiki bat. Zestoa beai uzten niyon, ta nik hartu beste zesto bat eta harea enkargukin. "¿Qué adelantos, no?". Hola oain ikusteie zean, atzerri hoitan. Nei askotan goatzeie haik gure bizimodue. Jarri han zeai beire ta, hizketan ta ez zaie entenditzen baiño, nik esaten nun joe gu holaxe ibiliko giñuan. Honbeste denboan aurreatua dao hau, honbeste denboa gutxin. Ta han beti igual dare! Hemen, berriz, hamen behintzat Jesus! Hemen aurreatua bizimodue buf, hasi jatetik, garbitasunekatik, labadorakatik, ude etxero. Gaiñea beida, guk dakau goien pisoa, ta han ude dao: ude komunen, baiñeran, nik ez dait zenbat tokitan ude. Bigarrengo pison'e, igual. Hementxe dao bigarren komuna, "cuarto de baño", hemen, honbeste ude ta, ta leheno ude hoi danak erango zien, nun izango zien ba? hoi da jakin beharrekoa. Zenek adelantatu o ze. Francotik honea ein die hoik.

8. Etxean ura izateko tranpak

- **Erref**: ALB-005/025
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:37:21. **Bukatu**: 00:38:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Etxean ura izateko aitak tranpak egiten omen zituen.

Transkripzioa
- Ba al dakizu ze itten zun harek? Ganbaran, ba berrehun litroko uda zea jarri, bidoia, ta hemendik mangak sartu, bete arte bete arte hue euki, […] hartatik gastatu , eatea-eta honea, baiño sukaldeako ta behar zan ude, hemendik betetzen zun. Ta geo, hara ude aittu dek ba, berriz´e sartu, ta

"lley puesta trampa puesta" esaten da. Ba harek hoixe itten zun. Ez zeola eukitzeik kontinuamente ude hola zean, betetzen kontinuamente ta iñor etortzen bazan ude eatea-o, atea azkar e, behik o idik ude edatea hola, atea azkar [...] atzea sartu, ta holakoxe martingalak! Zenbat gauze eakusten uen e, eziñek eta ezak-eta.

9. Besteen etxetan itulan egin, taloa ta esnea hartu eta gustura etxera

- **Erref**: ALB-005/027
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:40:13

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Etxea errepide bazterrean, ura bertan, taberna, denda, estankoa... Carmenen etxekoek gainontzeko baserritarrek ez zituzten baliabideak zeuzkaten. Hala ere, ez zuten besteekiko ezberdintasun handirik sumatzen. Besteen etxera joaten ziren itulan aritzera.

Transkripzioa
- Notatze zan difeentzik? Gainontzeko baserritarren ta, zuen arten o, sumatze zan, zoze difeentia o?
- Gu etxen, nik beti ezautu det, txapa, ekonomika, beste iñun ez, hemen danetan, danetan, danetan, "sin fuego", su baju baju-bajua. Hoi gustatu iten zitzaion, han ondon exeita eoteko ta, gustatu iten zitzaion. Baiño, bueno, geo txapak jarri zittuen ta txapa jarri ezkeo, hobetogo, uain egurre txikitzen ta lan gehio ta, su bajun sartu hemendik haraiñoko egurre-ta, aurreratu sue itteko-ta
- Ta sumatze zan ba gaiñontzeko umek ba lan gehio in ber izate zuela soron, o ganadukin ta zuek librexio?
- Bai, guri deittu itten ziguen batetik ta bestetik ta, aber ittulira jungo al giñen ta, baietz jungo giñela ta, han illuntzen merienda ematen ziun ta etxea.
- Gustoa jute ziñeten?
- Bai, egualdi udan beti izaten zan soroko lana ta ondo, ondo ibiltze giñen. Talo ta esnea jan illuntzen ta etxea.

10. Eskolan maistrak erdaraz, eta haiek ulertzen ez

- **Erref**: ALB-005/029
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:40:16. **Bukatu**: 00:42:27

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan ez omen zuten askorik ikasi. Maistra erdalduna izanik, gehienek ez zutenez gaztelaniaz hitz egiten, larri ibiltzen omen ziren. Errieta egin arren, euskaraz egiten uzten zieten eskolan.

Transkripzioa
-Ta, gaiñontzen, eskolan o notatze zan, kalekok igual eunero juten ziala ta,

bestek berriz... askotan kale...
-Bai, maistra´re, jartzen giñun maistra jartzen zan aurren aurren bea. Ta ume guztik illaran, illaran-illaran, bazien ordun´e alkatenak eta holako zea, haundizkik, haik danak, haik danak maixun ondon, gu berriz atzeko puntan, askotan ezta leziyoik hartu´re, ta ezta ezta ezta, ez genun eze ikasi, ezta ezer´e! Ezta ezer´e! Geo gure ondorengo Jexux difentzi earra.
- Nungoa zan zuen maistra hoi.
- Hil zan aspaldi, Maria Calzada, "de Madrid" o ez dakit nungoa zan. Ta gaiñea hoi zan, guk ez geñikiun erdeaz pitoik´e, ta dana-dana, harek hitzeiten zun haikin ta, orduako´re radioa bazan etxe baten ta, baiño ezer ez, ezer ez.
- Bazan ordun umetan iñor erderaz entenditze zunik?
- Ba, ume-umetan iñor ez, geo ba [...] kolejiua o zeoze, handizki hoik ordun bai baiño, dana, dana, dana euskera.
- Ta ordun, eskola jun ziñeten aurreneko eunen, erdera baten hasi zanen ze pentsatu ote zenduen.
- Auskalo ze pentsatu, geo bazien e, eote zan hemen pratikantea, kastellanoa. Kastellanoa pratikantea, maestra, maixue, ta hoik kastillanoa zoze hitz eiten zuen ta, gu baiño leheno hasitakok bazekien baiño guk bueno, ezer ez, ezer ez!
- Ta euskeraz hitz eiten uzte zizuen eskolan?
-Bai, errita iten ziun baiño uuf, errita, errita: "A ver en castellano, quién habla", ta...

11. Telefonoa etxean, eta enkarguen truke hurrak

- **Erref**: ALB-005/031
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:42:36. **Bukatu**: 00:44:13

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:
Herriko telefono bakarra beraien etxean zuten. Laskibar baserrikoek izan zuten lehenago, eta haiek Tolosara joan zirenean, etxean hartu zuten. Aitaren ustez erdaraz ikasteko era ona zen telefonoa etxean edukitzea.

Transkripzioa
- Geo telefono bat e, bakarra gendun...
- Herrin, zuena zan telefono bakarra?
- Bai, baiño aurrena beste batzuek euki zuen, aurrena beste batzuk.
- Zeintzuk euki zuen ba?
- Laskibar, Laskibar ta, Laskibar zien tente jende, zea xamarrak, eta haik eukitzen zuen etxen, ta enkarguk, amona zaharra bizi zan ta, neska alaba ´re edadekua ta, enkarguk guri deitzen ziun itteko: "Bueno, jungo al zea eskolatik atatakon halako basarrita?" ta, "Bai", ta bestei: "Zu jungo al zea halakota?" ta, "Bai", eskubete eurre ematen ziun, eurre e, ur handiz, ta harekin "a hacer encargo".
- Ta gustoa gaiñea.
- Gustoa gaiñea. Etxe hontan´e ez zan ba hola basarriko lanik, gaiñontzen basarritan, lana geatu gabe. Ta mutilek´e koskortuz geo danak mendia lanea-ta, bizimodu zea izan zan, goor xamarra.
- Ta ordun zuek, han Laskibarrekok utzi zuen, zeatik utzi zuen?
- Jun in zien Tolosa bizitzea, eta gu amak ez nahi, gu amak leheno proatuta zeken etxe hartan, goiko etxe hartan amonakin ta, atte [...] bizitten zienen,

ta zeatuta zeken proatuta zeken ta amak ez nahi, amak ez nahi ta attek bai, attek esate zun erdeaz ikasteko-ta ona zala.

12. Telefonozko enkarguak entzun eta idatzi. Erdaraz idazteko komeriak!

- **Erref**: ALB-005/033
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:44:59. **Bukatu**: 00:47:27

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:
Telefonozko enkarguak iristen ziren, eta udaletxekorako zirenak idatzi egin behar; haiek komeriak! Bestelako abisuak ere heltzen ziren, eta borrokan ibiltzen ziren anai-arrebak, telefonoa nork hartuko.

Transkripzioa
- Zuen ama Laskibarkoa zan?
- Ez, gurea? Ez.
- Ordun, telefonoa nundik zeukan ba, proatuta?
- Ba, hor jun ber zuen, alde in ber zuen hortik, ta haik´e baten batei eman in nahi ba, eman in nahi ba, ta gue atte laune-o zuen hango mutillek eta, gue attek esaten: "Bai erdeaz ikasteko ta ona dek hoi", "Pepito se llamaba" ta, bueno, ekarri zuen behintzat.
- Nola ekarri zuen, zer zan ba telefono hua?
- Ez dakit nola ekarri zuen, ez dakit nola. Baiño geo guk eskribitzen-ta oso gutxi gendukan, eta aiuntamentoa etortzen zien: "A ver un circular", mekauen, haik komerik, haik parrak itte zittuen [...]. Haik hartzen zuen, karta hartzen zuen eta geo eskribitua´re bai, Jesus.
- Ze in ber izate zenuen zuek.
- Eskribittu, haik telefonistak esan ta guk eskribittu. Jesus, haik parrak iten zittun, sekretario bat bazan. Bueno, akatuko nun gustoa. Geo etortzen zan bea, sekretario hori: "honek ze esan nahi du?". Hau [...] ezin letu, Jesus! Parre itten zuen, parre? Parre itten zuen. Nik esaten niyon: "Ez ziok ba, txikiri parre ittea ez baldin bakiu e, baiño hala itten zuen ba par, nahiko par, pentsa zazu.
- Ze klaro, zuei telefonoa jarri zizuenen, nun jarri zenduen?
- Hementxe, sukaldeko ondo ondo errez aitzeko moun.
- Ta, harek jotze zunen?
- Hartu itten gendun. !Hartzak hik, hartzak hik" ze izango ote zan bildurrez, ta askotan zien ba: "Jun zaitte halako tokita ta esaiozu amona hil dala ta entierroa dala holako ordutan", eta "bestea jun zaitez ta esaiozu betenario hoi bialtzeko honea, zeatik behieu umia in dula" ta holako abixok.
- Euskaldunak izaten zien normalian.
- Bai, bai bai. Baiño, Jesus! Ta gu baiño gutxigo zekienak´e bazien ta.

13. Deiak jaso, enkargua eman, "propioa" ordaindu.

- **Erref**: ALB-005/035
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:47:34. **Bukatu**: 00:50:42

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:
Herri guztitik etorri ohi zitzaizkien etxera deiak egitera. Deiak jasotzeagatik ere, "el propio" ordaindu behar izaten zen. Eta harrobikoei deiren bat jaso zutela abisatzeko, trapu gorri bat haga luze batean jartzen zuten etxe ondoan, harrobitik ikus zezaten.

Transkripzioa
-Herri guztikok batea biltze zien honea. Ta Laskibarren zeonen, danak harea.
-Ta ze izaten zian abixuk, betenaio kontuk, heriotzak...
-Heriotzak, betenario kontuk, entierro kontuk, igual umea jaio zala nunbaiten ta halako eunetan zala bataioa, o baten batek miñe hartu zula ta klinikan zeola ta holako, prezisok, oso prezisok, ta igual hoi deitzen zizuen ba, ze esango dizut nik? Donostitik-o, handik honea etorri zaite enkargo horrekin, ez da posible! Bazien entierrotakok eta norbeak etortzen zienak´e, etxea bixita iñez ta holako hil da ta holako hil da-ta, bazien, etortze zienak, oiñez, oin ze ingo ote genduke?
- Bat´e ez esan igual. Ta zuek ordun enkarguta harea ta honea ibiltzen ziñeten, ta inkargua emate zenduenen...
- Inkargue zea gure amak-eta ber izaten zuen a "el propio" eskatu, "el propio" esaten zien, eta hoi zan ba "el propio" han telefonoa jartzen zunak paatzen zun zea, gastue telefonokoa, "y luego pideme el propio tanto", bost pezta o hiru pezta-o: "¿Está conforme pa pagar?", "Es mucho igual", ta hortxe, "Bueno, bueno, yo estoy conforme yo estoy conforme para hacer el encargo", "¿Pero me hacen el encargo?", y "Si, si, ya le haremos", ordun etortzen zan hillien azkenen propio dirue ta ordun ba hue partitzen zan.
- Ta gero aparte, zuek juten ziñeten enkargua eamatea, baserri hartakuak o zeoze ematen zizuen?
- Bai, jenealen ematen ziun o fruta pixkat o intxor batzuk o txokolate ta ogie o karamelo batzuk, hola zeoze umeei ematen zaiona.
- Ta ordun ze ibiltzen ziñaten elkarrekin burrukan? "Ni jungo nauk eta ni jungo nauk"-eta.
- Hola urrutita ta hola anaiek bialtzen giñun, hiru anai bagiñun ta anaiek-eta. Geo atte´re iual jute zan gaue baldin bazan ta urjentea-ta, hola, hola. Ta geo esan nizun lehengon, zea, hemen hor atzen dao harrobie, atzen, ta ni umek eskolan hasi nittunen ta neonek ezin ba jun ta, sartu palo luze bat ta jarri hari zea, trapu gorri bat, ta hue haizek astintzen zun, haizek hola ibiltzen zun ta, seittun etortzen zien. Handik ikusten zuen, ikusiko zu gero, handik ikusten zuen ta, earki.

14. Albizturko harrobiko lanak

- **Erref**: ALB-005/036
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:50:42. **Bukatu**: 00:54:16

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Albizturko harrobia beraien etxekoa zen. Harria eta hondarra saltzen zuten. Tiroka ateratzen zuten harria, eta gero eskuz txikitzen zuten.

Transkripzioa
-Zuen anaiek eta, harrobin itte zuen lana?
-Ez, geo harrobie bela, gerra denboan da dana nahastu zan ta, gue attek eta´re ez dakit zeatik utzi zuen, harrobie. Nik ez dakit zeatik utzi zuen.
- Zuen aitana zan harrobiya berez?
- Bai, harek basarrikoa, Itsasokoa, ta nik ez dakit zeatik utzi izango zuen o, nik ez dait.
- Jende asko ibiltze zan lanen?
- Bertako jendea e, bertako jendea. Ba bat, bi, hiru, lau, ba, zortzi hamarren bat laun o hola. Bertako jendea, ba kanpotik eta iñor ez zan, nola etorriko zien? Oiñez?
- Ta saldu iten zuen geo harriya o, karia inda o?
- Hondarra, hondarra, Donostiko zea´re, hamengo harrikin inda omen da, Donostiko, zer da, erreka e, putzu izkiñen daona Donostiko, ez dait zer hemengo harrikin ta harrie ba al dakizu nola eamaten zuen? galeratan, karrotan, ta pixue handie baldin bazeon, bi harrikin kargatuta karroa.
- Ordun nola iten zuen, horko paeta puska dana harriz, nola ateatze zuen harriya?
-Tirok iten zittuen, tirok ite zittuen, "tetetetetetete", ta geo sartzen zuen zea kartutxo ez dait zer, tiroa, tiroa, tiroa, ta tiroa botatzeko zean, etxea sartzen giñen. Bai, ta geo botatzen zun "pum!". Tiroaldi bat eta geo ya ateatze zuen harria, ta geo harri hoi txikitze zuen, ta geo hondarra itte zuen ta...
- Txikitu nola txikitze zuen?
- Donostiko Kursaala, Albizturko harrikin inda, banekin, ta gue atte ta, ta irik ba, eztait zenbat pare ibiliko zittuen, ez Dait.
- Ta harri hua txikitzeko?
- Harri hua txikitzeko? Eskuz asko, zulo bat in harrieri´re, harri haundi bati zulo bat inda, zulo bat inda, harei´re sartzen zien munizioa o zeoze, geo partitzen zan baiño, partittu, koxkau. Oain hause inda uzten due hor, hause inda, baiño ordun, lan, lan nekosoa ta motela lana, ezin, ta oain "en un santiamen, ya está".
- Ta, ordun abixua nola ematen zuen, tirua bazijoala, bulla baten o?
- Aittu ite zan, aittu, han goiko kamion izkiñan jarri itten zien, kotxentzako ta, ta beheran´e bai, kamioa errespetatzen zuen, geatu itten zien ta, ta zea bandera [...] jendeai zeatzen, hue zan harrobian bertako, harrobian bertako zan hue.
- Ta zuek zeatik sartzen ziñeten etxe barrua, tirua zanen?
- Harrik igual etortzen zien ta.
- Honeaiño bai e? Harri pusketa, harri txintxorrak o?
- Txiki, txiki xamarrak, bai. Hara tiroa ta, tiroa.

15. Gerra garaian egin zuen harrobiarenak

- **Erref**: ALB-005/037
- **Iraupena**: 0:05:44. **Hasi**: 00:54:16. **Bukatu**: 01:00:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Gerra aurretik izan zuen harrobiak garairik onena. Gerra garaian behera egin zuen negozioak.

Transkripzioa

- Ta ordun gerra denboran, nahastu in zan erabat.
- Dana nahastu zan. Nik ez dakit. Gue negozioa´re bukatu zan, attai kamiona kendu zien, ez giñen gu politikuk ez ezer ez, ez gendun ezertan, ez gendun ezertan, ez, ez, ez eskubirik ez ezkerrataz hitz ein. Ez genekiun ezkerra zen zan eta eskubi zer zan, baiño nik ez dait zeatik, zeatik, dana nahastu zan gue negoziua. Gero aitte gerraa eraman zuen, ama bakarrik hemen, dana nahastu, dana, ta geo kitto, ez zan gehio hasi. Ez zan gehio hasi. Hala segittu balu, ez dakit nola eongo giñan, atzerrin bezela igual, han bason janez-ta, baiño nik ez dakit geo nola adelantatu zan, ni ezkondu nitzen hemendik, klaro sasoia etorri ta jendea zortzi, danak neskame ta morroi, da ni ezkondu nitzen “con veintisiete años” ta “veintisiete años, y”, jarri nitzen Iruran, Iruran jarri nitzen, eta beste orduako zaharrena ezkonduta zeon ta ni neskame, “en un barrio de Tolosa”. bar Uranga. Izeko-osabak zien haik, eta han ein nittun ez dakit bosten bat o seien bat urte, eta geo nobiyua in nun ba ta ezkondu in ber zala, ta etxe hau triste zeon, danak alde inda, batzuk neskame ta bestek, hemen´e dana atzeatu zan ba ta ez zeon diruik´e, ta ezkondu in ber gendula ta geo baten bat etorri ber zala etxea, baten bat etorri ber zala etxea, ta nik esan nion: "Bueno etxea aber ba zaharrenetik zaharrenea hasi berko zue". Ta zaharrena´re ondo zeon ta bigarrena´re bai ta, ondo ta, bueno nik jun berko nula, nik, etxe hare zeon, “de cuando la guerra estaba”. Ta etxe hare desastre zeon ta etxe hutsek´e asko, jende berri hau etortzen hasi zan arte ta geo ba, bueno ba etorri giñen ta ume txiki bat bagendun orduako zaharrena Jexux, han goien etxe polit askoa auken huaxe da, eta hue gendun ta etorri giñen ta, hori, hue hotzikara ematen zun, lehengo tokik eta zezken baiño, eze in gabe urte askon ta, [...] bueno, etorri giñen behintzet. Ta nola lehen leheno ´re beti taberna izan dan, nik´e taberna jarri. Guk ez dakiu besteik, Tolosan ´e neskame eon nitzen ta, nik´e taberna jarri ta bueno, ondo.
- Senarra zendun, irurarra? Irurakoa zendun senarra?
- Ez, Albizturkoa.
- Albizturkoa?
- Bai, hementxe dao, ateatzeko esan ber diot. Holaxe, hasi giñen da, bost ume izan giñun da haik´e hazi giñun da, ondo, primeran. Ta oain ba, oain erretiroa hartuta, ta danak hementxe geatu die gue seme-alabak, ez zuen iñoa juteko gogoik hemendik ta.
- Seiñale ona.
- Esan dizut, lau mutil ta hemen alaba geatu zan ta, primeran. Honek eamaten du oain hau.
- Ta taberna jarri zendunian berriz´e hemen, seitun hartu zun martxa?
- Bai, ez zan taberna zea haundiik, beste fundamentu, gu bezelaxe zeren ta jendeik ez zan etortzen ta, kotxeik´ez zan arten da, baiño pixkana-pixkana-pixkana-pixkana, dana piztu!
- Ze ematen zenduen ordun tabernan? Ze jenero izaten zan?
- Ba jenero aurrena hasi giñen beti basarritarrak ez zien ba iñoa ateatzen, iñoa ez zien ateatzen ta nahi zuen ba, lanbatetan-ta atera nahi izaten zuen ta ba jartze zuen ba antxume jana o arkume jana o txerri jana o beti zeoze, biltzeko zea, trikuk´e bai jartze giñun. Ta jartzen zuen zea, lanbaten, ordun jenealen lanbaten ta igual biltzen zien dozena bat laun-taa, ta hoik txerrik jan da "viva la juerga!". Ta geo jai goizen izaten zien mezak, ta ordun jende guztie mezeta etortzen zan, horkok eta hangok eta hemengok-eta. Goizen pattarra atea, pattarra atea ogiekin ta, hue´re jaten zuen ta. Geo jai gauetan´e zahar batzuk alkartzen zien, gaztek bizikletan baldin bazuen alde iten zuen, baiño. Hola alde itten zuen ta geo, geo bakizu ze pasa zan?

Hasi zien, musen ta hasi zien jendea moittu zan pixkat, ta geo kotxek hasi zien pixkana-pixkana...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com